

(Más abajo en castellano)

DANA KRISIAREN BIKTIMEKIN ELKARTASUNA

JUSTIZIA KLIMATIKO PRESAZKOA ETA GLOBALA!

Krisi klimatikoa hemen da jada. Planetaren batez besteko tenperatura 1,2 °C igo da, eta honen inpaktuak nabarmenak dira mundu osoan. Tenperatura globalak gora egin ahala, muturreko fenomeno meteorologikoen maiztasuna eta intentsitatea ere handitzen dira. Lehorteak, bero-boladak eta euri-jasek eragindako uholdeak dira Iberiar penintsulari eta munduko beste eskualde batzuei gehien eragiten dioten eraginak. Ondorio suntsitzaileak dituzten eraginak, eta aurrekaririk gabeko kalteak dakartzatenak, hala nola, DANA-ren uholdeek sortutako gertaera berri eta tragikoa. Gure elkartasun osoa adierazten diegu València-n, Gaztela-Mantxan eta planeta osoan ondorio latza hauek jasaten dituzten pertsonei.

28 Klima Gailurren ondoren, Bakú-ko COP-era iritsi gara, lan handia egiteko beharrarekin eta herrialdeak konpromezu berrietan aurreratu ahal izateko posizio oso urrunekin. Oraindik tenperaturen igoera 1,5º C-ra mugatuko duen eta krisi klimatikoaren ondorio okerrenak saihestuko dituen egoera klimatiko bat ziurtatzen urrun gaude: orain, munduko herrialde guztiek Dubairen azken COP-ean lortutako akordioak beren plan nazionaletan modu sinesgarri eta handinahian inplementatzeko unea da, 2040-rako deskarbonizazio oso barne, bai iparralde globaleko herrialdetan, baita eskualdeko gobernuetan ere, hala nola Eusko Jaurlaritzan.

Klima Gailur honetan, finantzazioa izango da gai nagusia, eta hemen, berriz ere, iparralde globalak bere erantzukizun historikoak alde batera uzten ditu. Hego globaleko herrialdeek krisi ekologikoaren inpaktu okerrenak pairatzen dituzte, ardura gutxiena izan arren, eta datozen hamarkadetan 10 trilioi estatubatuar dolar beharko dituzte bidezko trantsizio ekologiko bat aurrera eramateko, baina Europar Batasunak zifra hau saihesten du eta gehiegizkoa dela esaten du. Argudiatzen dute, noski, ez dagoela dirurik.

Eta hala ere, badago dirua eta soberan.

Izan ere, mundu osoko gobernuak urtero 7 trilioi dolar inbertitzen dituzte erregai fosilentzako dirulaguntzetan. Energia iturri hauek gure menpekotasuna areagotzen eta erresilientzia gutxitzen dute, eta klima-krisiaren erantzule nagusia dira. Euskadin, Eusko Jaurlaritzak enpresa fosilak finantzatzen jarraitzen du, hala nola, Petronor, eta Bizkaiko Foru Aldundiak makroproiektuen alde egiten du, adibidez, Subflubiala, auto pribatuen mugikortasuna bakarrik sustatuko duena. Inbertsio horiek modelo fosilean gero eta gehiago sakontzen dute.

Aldi berean, aberastasuna oso esku gutxitan biltzen da. Munduko biztanleriaren %1-ak beste %95-ak baino gehiago bereganatzen du. Benetan progresiboa den sistema fiskal bat behar dugu, non gehien duenak eta gehien kutsatzen duenak gehiago ordaintzen duen, kutsatzaile handientzako eta industria fosilarentzako zerga klimatiko berezi bat barne. Gutxiengoaren interes partikularren aurrean, hegoaldearen bizitza eta biziraupenari eman behar diogu lehentasuna.

Azkenik, gaur egun militarizaziora bideratzen den finantzaketa irauli behar dugu, pertsonak eta planeta babestearen alde, pertsonak erdigunean jarriko dituen trantsizio baketsua ziurtatzeko, Gaza, Kongo edo Ukraina bezalako lekuetan egindako eraso militarren ondorioz gertatzen ari den giza bizitzaren galera geldiaraziko duena. Bidezko trantsizio ekologikoa, ekosistema osasuntsuak, elikadura eta energia subiranotasuna, hiri bizigarriak, enplegu duinak eta kalitatezko zerbitzu publikoak izatea ahalbidetuko diguna.

Gaur egun, Espainiar estatuko mugimendu ekologista eta soziala osatzen dugun erakundeok gure herriak bere konpromisoak eta erantzukizunak bete ditzala eta une erabakigarri honetan beharrezkoa den elkartasuna erakuts dezala eskatzen dugu. Goi-bilera honetan Eez dugu porrot gehiagorentzako astirik.

Aldaketaldia - Alianza x Clima

EN SOLIDARIDAD CON LAS AFECTADAS POR LA CRISIS DE LA DANA

JUSTICIA CLIMÁTICA URGENTE Y GLOBAL

La crisis climática ya está aquí. La temperatura media del planeta ha aumentado en 1,2°C y los impactos de este incremento no dejan de notarse en todo el mundo. A medida que aumenta la temperatura media global, aumentan también la frecuencia y la intensidad de los fenómenos meteorológicos extremos. Las olas de calor, los días consecutivos sin precipitación y los riesgos de inundación por lluvias torrenciales son los impactos que más están afectando a la península ibérica y a otras regiones del mundo como consecuencia del calentamiento global. Impactos de consecuencias devastadoras que acarrearán daños sin precedentes, como los vividos durante el reciente y trágico suceso ocasionado por las inundaciones de la DANA en nuestro país. Expresamos toda nuestra solidaridad con las personas que sufren las terribles consecuencias en València, Castilla la Mancha y en todo el planeta.

Tras 28 Cumbres del Clima, llegamos a la COP de Bakú con mucho trabajo por hacer y con las posiciones de los países muy alejadas para avanzar en nuevos compromisos. Todavía estamos lejos de asegurar un escenario climático que limite el incremento medio de las temperaturas a 1.5 °C y evitar las peores consecuencias de la crisis climática: ahora es el momento de que todos los países del mundo trasladen de manera convincente y ambiciosa los acuerdos alcanzados durante la última COP de Dubái a sus planes nacionales, incluyendo la descarbonización completa para 2040 en los países del norte global, así como los gobiernos regionales como el gobierno vasco.

En esta cumbre, el tema fundamental será la financiación y aquí, de nuevo, el norte global ignora sus responsabilidades históricas. Los países del sur global, que sufren los peores impactos de la crisis ecológica a pesar de ser los menos responsables, necesitan 10 trillones estadounidenses de dólares en las próximas décadas para una transición ecológica justa, pero la Unión Europea esquiva la cifra y la considera desproporcionada. Argumentan, por supuesto, que no hay dinero.

Y sin embargo, hay dinero y de sobra.

Los recursos económicos existen, ya que los gobiernos de todo el mundo invierten anualmente 7 trillones estadounidenses de dólares en subsidios para los combustibles fósiles, una fuente de energía que nos hace dependientes y poco resilientes, además de ser la principal responsable de la crisis climática. En Euskadi, el Gobierno Vasco sigue financiando directamente a empresas fósiles como Petronor, y la Diputación de Bizkaia apuesta por macroproyectos como la subfluvial, que sólo promoverán la movilidad con automóviles privados. Inversiones que ahondan cada vez más en el modelo fósil para la sociedad vasca.

Al mismo tiempo la riqueza se concentra en muy pocas manos. El 1 % de la población mundial acumula más que el 95 %. Necesitamos un sistema fiscal realmente progresivo, donde quien más tiene y más contamina pague más, incluyendo un impuesto climático especial para los grandes contaminadores y la industria fósil. Frente a los intereses particulares de la minoría, debemos priorizar la vida y la supervivencia del sur global.

Por último, debemos revertir la financiación que actualmente se destina a la militarización en favor de la protección de las personas y el planeta para asegurar una transición pacífica que ponga a las personas en el centro, que asegure y detenga la pérdida de vidas humanas que se está produciendo como consecuencia de las distintas ofensivas militares en lugares como Gaza, Congo o Ucrania. Una transición ecológica justa que, además, nos permita tener ecosistemas sanos, soberanía alimentaria y energética, ciudades habitables, empleos dignos y servicios públicos de calidad.

Hoy, las organizaciones que conformamos el movimiento ecologista y social de España exigimos que nuestro país cumpla con sus compromisos y responsabilidades, y muestre la solidaridad necesaria en este momento decisivo. No tenemos tiempo para otra cumbre fracasada.